



SURF ENTRENATZAILE IKASTAROA
I. MAILA

PRESTAKUNTZAREN XEDEA

I. mailako ikastaroak kirol-hastapeneko irakasle izan nahi duten teknikariei zuzenduta daude. Maila horretan gaitasun hauek bereganatu behar dituzte:

- Kirol-hastapena dinamizatzea, irakastea eta zehaztea.
 - Maila horretako ekintzetan, lehiaketetan eta jardunaldietan parte hartzen duten kirolariak antolatzea, laguntzea eta zaintzea.
- * Erreferentziazko programazioan jasota datozen segurtasun-baldintzak eta zuzentzarauak bete beharko dira.

EGITURA ETA EZAUGARRIAK

Ikastaroa 3 bloketan egituratzen da: bloke komuna, bloke zehatza eta praktikaldia.

BLOKE KOMUNA:		
MODULUAK / ATALAK	AURREZ AURREKO ORDU KOPURUA	URRUTIKO ORDU KOPURUA
Kirol-portaeraren oinarriak	0	20
Lehen sorospenak	5	25
Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna	0	5
Kirol-antolakuntza	0	5
GUZTIRA	5	55

BLOKE ZEHATZA:		
MODULUAK / ATALAK	AURREZ AURREKO ORDU KOPURUA GUZTIRA 57.5	URRUTIKO ORDU KOPURUA GUZTIRA 38.5
Surf egiteko trebetasunak garatzea	12.5	12.5
Surfaren irakaskuntza	35	-
Surfaren irakaskuntzan segurtasuna	10	-
Surfeko materiala	-	6
Surfeko arauketa eta lehiaketa	5	5
GUZTIRA	62,5	23,5

PRAKTIKALDIA	150 ordu
---------------------	----------

Prestakuntzaren ezaugarriak:

- Aurrez aurreko eskolak. Eskola-ordu guztietara bertaratu behar da nahitaez.
- Urrutiko prestakuntza:
 - Ikasteko plataforma birtual baten bidez egingo da urrutiko prestakuntza.
 - Irakaskuntza telematikorako bereziki diseinatutako material didaktikoa egongo da.
 - Azterketak aurrez aurre egingo dira.
- Praktikaldia
 - Federazioaren beraren edo hark baimendutako kirol-elkarteen jardueren barruan egingo da.
 - Ikasleak bloke zehatza gainditu eta matrikula egin edo bloke komuna amaitu duenean has dezake praktikaldia.
 - Sarrera-probatik 12 hilabeteren buruan egin beharko dira gehienez ere.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Ondore akademikoetarako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua (DBH) edo titulu baliokidea egiaztatzea *

* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluaren (DBH) ordezkotitulua:

- a) Teknikari laguntzailearen titulua.
- b) Teknikariaren titulua.
- c) Batxilergo Bateratu Balioaniztunaren (BBB) bigarren maila gainditu izana, edo, hala badagokio, Batxilergo Bateratu Balioaniztunaren (BBB) lehenengo bi mailetan gehienez ere bi irakasgai edukitzea gainditzeko.
- d) Goi Mailako Batxilergoko titulua.
- e) Irakaskuntza Ertainen Erreforma Esperimentaleko lehenengo zikloaren bigarren maila gainditu izana.
- f) 1963 planeko ikasketen hirugarren maila edo Arte Aplikatua eta Ofizio Artistikoak ikasketen komunitako bigarren maila esperimentala gainditu izana.
- g) Industria-ofizialtza titulua edukitzea.
- h) Ondore akademikoetarako aurreko ikasketen baliokideak diren beste ikasketa batzuk gainditu izana.
- k) Xehatutako Batxilergoaren titulu eta egoera baliokideak (taularen eskuineko parteak).

* *Eskola Graduatua ez da DBHren baliokidea.*

* DBH edo titulu baliokiderik eduki ezean, ordezkotitulua heldutasun-probak (edo Erdi Mailako LH sarbide-proba) gainditzeko sartzeko aukera dago. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak urtean behin egiten duen proba bat da. Informazio gehiagorako, sakatu [aquí](#).

* Atzerriko titulua dutenek ere ikastaroa egin dezakete baldin eta ikastaroa antolatu duen federazioan dokumentu hauek aurkezten badituzte:

- [Volante para la inscripción condicional en el curso](#) (beteta eta sinatuta).

- Atzerriko titulua homologatzeko eskumeneko hezkuntza-administrazioan eginiko eskaeraren (ikastaroan sartzeko titulazioetako bati dagokion eskaera) fotokopia konpultsatua. [Más información](#).

Gero, ikastaroa amaitu baino lehen (praktikaldia barne), ikasleek hezkuntza-administrazioak emandako homologazio-ziurtagiria aurkeztu beharko dute federazioan. Osterantzean, egindako prestakuntzak ez du baliotasun ofizialik edukiko.

Sarrera-proba zehatza gainditzea.

- 5. atala ikusi

SARRERA PROBA ZEHATZA

Sarrera-probak ezaugarri hauek ditu:

Probaren egitura:

Igeriketa-proba:

- Hautagaiak 200 metroko zirkuitua egingo du, ordena honekin: 50 metroko lasterketa hondartzan, uretan sartu, 50 metrora dagoen buiaraino igeri egin itsasoan barrena, igerian bueltatu, sarrera-puntutik irten eta 50 metroko lasterketa egin irteera-marraraino.

Surfeko proba:

- Hautagaiak 12 minutuz gehienez ere ekintza hauek burutu behar ditu: uretan sartu, urautsi-zonaraino iritsi, behintzat bi olaturen gainean surfean aritu, eta urautsi-zonatik irten itsasertzera bueltatzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

Igeriketa-proba:

- 5 minututik beherako denboran 200 metroko ibilbidea egitea.

Surfeko proba:

- Egokiro arraun egitea (desorekarik gabe).
- Behintzat bi azpiratze (ohol eta guzti aparraren azpitik pasatzea) edo eskimotajea (SUP eta longboard) egitea.
- Bi olaturen gainean surf egitea, kontrolatuz, eta olatu bakoitzean oinarritzko mugimendu bat egitea.

- Oharrak:
 - Proba zehatzak nazio osorako balioko du, gainditu eta hurrengo 18 hilabetez.
 - Horrenbestez, aurreko 18 hilabeteetan beste ikastaro baten sarrera-proba gainditu dutela egiaztatzen dutenek ez dute ikastaro honetan sarrera-probarik egin beharko.
 - Uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren ezarritakoaren arabera Goi Mailako edo Errendimendu Handiko kirolariak direla egiaztatzen dutenek beraien kirol-modalitatean edo -espezialitatean ez dute baldintza zehatzik bete beharko. Kasu horretan, interesatuak proba egin aurretik baldintza horren egiaztagiria edo ziurtagiria aurkeztu beharko du federazioan.
 - Desgaitasuna duten pertsonen kasuan epaimahaiari aholkuak emateko mekanismo bat jar daiteke martxan, desgaitasun-mailak prestakuntzari etekina ateratzea, dagokion mailako eskumenak lortzea eta lanbidean jardutea ahalbidetzen dieten baloratzeko.

ATALAK KONPENTSATZEA- BALIOZKOTZEA MERITUEKIN ETA BESTE PRESTAKUNTZA OFIZIAL BATZUEKIN

- Interesatuak dagozkion eskaera eta dokumentuak aurkeztu behar ditu federazioan, ikastaroan izena emateko epean.
 - Bloke komuneko atalak (dokumentazioa eta izen-ematea HARROBIAn aurkeztu):
 - Jarduera fisikoetan eta kirolean irakaskuntza **ofizialak** egiaztatzeagatik:
 - Ikusi [tabla de convalidaciones](#).
 - Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin zerikusirik ez duten beste irakaskuntza **ofizial** batzuk egiaztatzeagatik, bat datozen ikasgai eta eskola-zama berdinarekin edo handiagoarekin.
 - [Solicitud](#)
 - Bloke zehatzeko atalak (PRESTAKUNTZA HASI BAINO 15 EGUN LEHENAGO EUSKAL KIROL ESKOLAN aurkeztu):
 - Beste ikasketa **ofizialetan** kirol-modalitate/-espezialitateko irakaskuntza **zehatzak** egiaztatzeagatik, bat datozen ikasgai eta eskola-zama berdinarekin edo handiagoarekin. [Solicitud](#)
 - Uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera Goi Mailako edo Errendimendu Handiko kirolaria izateagatik bloke zehatzeko ataletan konpentsatu ahal izango dira teknikari, taktikari eta arautegiari dagozkien ikasgaiak. [Solicitud](#)
- Kirol-modalitate honen edo beste baten bloke komuna (Hezkuntzaren Lege Organikoaren bloke komuna) edo aurretiazko mailetan bloke zehatzeko irakasgai jakin batzuk gainditu dituztenek ez dute baliozkotzerik egin behar, eta federazioan dagokion ziurtagiri ofizialaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute soilik.

ESPERIENTZIA EGIAZTATZEAREN BIDEZ PRAKTIKETAKO ZIURTAGIRIA LORTZEA

- Teknikari edo entrenatzaile moduan lan-edo kirol-esperientzia egiaztatzen duten ikasleek praktiketako ziurtagiria lor dezakete praktikaldia egin beharrik gabe.
- Horretarako, egiaztatu beharko dute:
 - Lan-edo kirol-esperientzia kirol-modalitate/-espezialitate berdinean eta prestakuntza-maila berdineko jardueretan.
 - 300 orduko gorako esperientzia.
 - Eskolako kirol-jardueretan prestakuntza edo lan-edo kirol-esperientzia izanez gero: 150 ordu.
 - Bloke zehatza hasi aurretiko esperientzia.
- Lan- edo kirol-esperientzia honela egiaztatu behar da:
 - Lan-esperientzia:
 - Besteren konturako langileak: kontratuaren iraupena, burututako jarduera eta lan egindako denbora jasotzen dituen enpresako ziurtagiria.

- Norberaren konturako langileak: urtebeteko antzintasunarekin behintzat zerga-betebeharrak dituztenen erroldan alta eman izanaren ziurtagiria eta interesatuaren adierazpena burututako jarduerarik garrantzitsuenei buruzkoa.
- Kirol-esperientzia:
 - Kirol federatua: burututako jarduera eta lan egindako denbora jasotzen dituen Espainiako edo Euskadiko federazioaren ziurtagiria.
 - Eskola-kirola: burututako jarduera eta lan egindako denbora jasotzen dituen foru-aldundiaren ziurtagiria.
- Ikasle interesatuak eskabidea aurkeztu behar du [solicitud](#) federazioan, praktikaldia **hasi baino lehen**.

HIZKUNTZA

- Euskara
- Gaztelania

DIPLOMA

- Prestakuntza gainditzen dutenek diploma ofiziala jasoko dute:
 - SEI – I MAILAKO entrenatzailea
- Surfaren kirol-modalitateko/-espezialitateko irakaskuntzak dagokion dekretuaren bidez hezkuntza-sisteman sartzen direnean, ikasleek diplomaren baliokide akademikoa lor dezakete, hots, Surfean Erdi Mailako Hasierako Zikloaren ziurtagiria.

PREZIOA

- Leku kopurua: **30 plaza**

	PREZIOA
Sarrera-proba	30 €
Bloke komun osoa	220 €
Bloke zehatz osoa	575 €
Praktikaldia	-
GUZTIRA	825 €

INFORMAZIO GEHIAGORAKO DEITU 94 472 43 66 TELEFONORA.